

AISA online ikastaroa

Xabier Zubizarreta

Helduen euskalduntze-alfabetatzeak modua egin behar du gizatalde desberdinen beharrei egokitutako eskaintza egiteko. Hain zuzen ere, euskalduntze-alfabetatzearen jardunean, berau eraginkorra izango bada, oso kontuan izan beharko dira gizartean sortu eta sor daitezkeen eskaera berriak.

Talde horietan sar daitezke etorkinak. Izan ere, makina bat lagun etorri dira azken urteotan Ekialdeko Europatik, Afrikatik eta Hego Ameriketatik, hemen bizitzen gelditu eta bertakotzeko asmoz. Eta, krisiak krisi, gure gizartean txertatu dira. Egoera soziologiko horri erantzun aproposa eman nahian etorri zen AISA harrera-ikastaroen egitasmoa, eta ildo berbera jorratu nahi du AISA berriak ere, proiektu horren garapena denak: etorkinak euskarara hurbiltzea eta gure hizkuntza bereganatzeko prozesuan lehen pausoak ematea, euskal gizartean ahal den ongien errotu daitezen.

1. AISA, abiapuntua eta bilakaera

“Etorkinak euskarara hurbiltzeko atea”. Honela aurkeztu zuten Benitezek eta Gaintzak (2004) AISA HIZPIDEn. Ikasmateriala 2005ean argitaratu zen estreinakoz, paperezko bertsioan, Immigrazioko Zuzendaritzarekin elkarlanean. AISA harrera-ikastaroen xedea zen eta da etorkinak euskara ikastera bultzatzea. Helburu horrekin, AISA harrera-ikastaro linguistikoak antolatu dira hainbat tokitan; bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinentzat diseinatuak. Aurrez aurre erabiltzeko materiala da, erreferente nagusi irakaslea duena, eta horren arabera dago bideratua elkarreragin guztia. Materialok osatzen dute AISA bilduma:

- AISA ikaslearen liburuak (4 liburuki)
- AISA irakaslearen liburuak (pdf formatuan)
- AISA hiztegia
- AISA bideoak (2 DVD)

Zabalkunde handiagoa emate aldera eta, batik bat, etorkinen talde horri euskara ikasteko aukera eta erraztasun gehiago emateko, ikasmaterial hori online jartzea erabaki zen. Duela gutxi burutu da egitasmo hori, 2012ko urtearen bukaeran jarri baitzen abian AISA ikastaroa online. IKTKo tek-

nologiak oinarri harturik, eta dagozkion egokitzapen didaktikoak egin ondoren, autoikaskuntzako ikastaro gisa eskaintzen da. Proiektua 2011n esleitu zen, eta Ihardun Multimedia enpresak gauzatu du, Mondragon Linguarekin batera eta HABErekin elkarlanean. Hasiera batean etorkinei zuzendutako ikasmateriala bada ere, ezin uka, Interneten egonda, probetxugarri izan litekeenik euskara ikasteko bidean lehenengo pausoak eman nahi dituen ororentzat ere.

2. Online ikastaroaren nondik norakoak

Ikastaroa, esan bezala, online eskaintzen da, doan eta tutorerik gabe. Unitateak 20 dira orotara –paperezko edizioan zituen berberak–, eta guztiak burutzeko 60-80 ordu behar direla aurreikusten da. Euskara ikasten hasteko materiala da, oinarri-oinarrizkoa.

Material honen erabiltzaileak liburuetan dauden eduki berberak eta antzeko jarduerak aurkituko ditu, baina ikasteredu batetik bestera aldatzeak dakartzan aldaketekin. Kontuan eduki behar da, material hau erabiltzeko, ikasleak ez duela irakaslerik izango aurrean; bakarrik aurkituko da ordenagailuaren aurrean. Egoera horretaz jabetuta, erraztasunak eman nahi izan zaizkio bakarrik molda dadin:

- Prozedura eta instrukzio argiak dituzte, bakarkako ikasketan dabiltzan ikasleentzat egokituak.
- Euskaraz adierazita daude, eta bigarren hizkuntza, gaztelania, dute lagungarri.
- Autozuzendutako atazak daude: aukera anitzekoak, egia/gezurra motakoak, ordenatu, lotu, hutsuneak bete, arrastatu (hitzak, esaldiak, etab.).
- Audio eta bideo guztien transkripzioak jardueretan bertan ditu eskura erabiltzaileak.
- Elkarreaginerako atazen proposamenak eta prozedurak eskaintzen dira.
- Feedback edo atzeraelikadurari dagokionez, autozuzendutako zereginetan lortutako puntuazioa helarazten zaio erabiltzaileari.

Paperezko edizioan bazen protagonista bat, Juliana, ikasmaterialean barrena, unitatez unitate agertzen zena, nolabaiteko lotura emanaz materialari. AISA berri honetan, protagonista pertsona bakarra izan beharrean, talde bat dugu: euskara ikasten ari den talde birtual bat, bost ikaslez eta irakasle batez osatua. Aitziber irakaslea bertakoa da, baina ikasleak denak kanpokoak: Vasile, Errumaniakoa; Elena, Kolonbiakoa; Najat eta Yasmine, Marokokoak; eta Guillaume, Frantziakoa (ikus 1. irudia). Aitziber irakasleak emango dizkie argibideak ikasleei eta onlineko erabiltzaileei, baita ikastunitate bakoitzeko helburuen berri ere.

1. irudia: AISA onlineko euskara-talde birtuala: Yasmine, Nahat Vasile, Elena, Aitziber (irakaslea) eta Guillaume



Egoerak, jakina, ohikoak dira eguneroko bizimoduan: jendea aurkeztea, familiaren berri ematea, erosketak egitea, janaria prestatzea, hirian mugitzea... Orobat, gure kultura eta ohiturekin lotutako gaiak: jolasak, festak, hizkuntza bera...

2.1. Nola sartu ikastaroan

Online ikastaro hau egiteko, www.ikasten.ikasbil.net atarian sartu, eta AISA ikastaroan klik egin besterik ez dago. Ikastarora bi modutan sar daiteke: kontua irekita edo irekitzeke. Modurik eraginkorrena, ez bairik gabe, erabiltzaile-kontua sortuta sartzeta da; hartara, plataforman jasota geratuko baita ikastaroan egiten dugun guztia, eta ibilbide guztia ikus-teko aukera edukiko. Kontua ireki gabe ere sartu daiteke ikastarora eta bertako jarduerak egin, baina, horrela, ez dira gordeta geratuko egindako lana eta izandako emaitzak.

2.2. Foroa eta laguntza

Ikastaro honetan bada **Irakasleari galdetu** izeneko atala (AISA@habe.org), edozein argibide didaktiko behar izatera, irakasle birtual batekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen duena. Irakasle horren funtzioa da jarduera edo edukietan sortutako zalantzak argitzea, baina ez erabiltzaileek sortutako testurik zuzentzea –ez idatzirik, ez ahozkorik–. Orain arte jasotako galderak tankera honetakoak dira: ea euskaltegiko irakasleek tutorizatu dezaketen ikastaro hau, etorkinez gain bestelako ikasleekin ere erabilgarria den, aurrez aurreko harrera-taldeak osatzeko

zer urrats edo baldintza bete behar diren eta, azkenik, ikastaroan izena emateko edo nabigatzeko arazoei buruzkoak.

Foro irekia deitutako atala ere badago. Ikasleak elkarrekin harremanetan jartzeko, edota elkarren artean ideia eta proposamenak partekatuzko bilgune izan nahi luke foro horrek. Atal horretan, esate baterako, ikasle batek adierazi du arazoak dituela 2. unitateko zenbakiekin, eta ikastaroko kideei galdetzen die antzekorik gertatu zaien.

3. Ikasmateria- laren egitura

Ikasmateria hau 20 **unitatez** osaturik dago, eta unitate bakoitzak 5 **egin-kizun** ditu (ataza deitu ohi duguna eginkizuna da hemen), eta eginkizun bakoitzak 5 **jarduera** (ariketei jarduera deritze). Bestalde, zenbait unitate-tetarako material berria sortu da, paperezko edizioan zegoena ez baitzen egokia autoikaskuntzarako (irakaslea edo taldea aurrean ez izateak baliogabetu egin ditu zenbait jarduera) eta, baita ere, paperezko unitate batzuk, laburragoak izanik, ez zutelako jarduera guztiak osatzeko izaerarik eskaintzen.

Hona hemen 20 unitateen izenburuak

1. Kaixo!	11. Etorri gurera!
2. Inprimakiak betetzen	12. Hau kuxidatea!
3. Familia	13. Jolasean
4. Non dago tren-geltokia?	14. Eskolan
5. Hirian ibili!	15. Bilbotik Kolonbiara
6. Azokan	16. A ze lana, lan bila ibiltzea!
7. Hau gosea!	17. Gizonak lan, emakumeak lan eta lan
8. Dendaz denda	18. Baietz mendi-tontorrera heldu!
9. Zoaz ospitalera!	19. Festara!
10. Horrek dauka sasoia!	20. Jalgi hadi plazara!

Unitate bakoitzean, 2 ebaluazio egiten dira: bata laburra, jarduera batekoa (2. eginkizunaren azkenean), eta bestea luzeagoa, azken eginkizuneko 5 jarduerak horretara jarritz. Hainbat arlo hartzen dira kontuan ebaluazioan, hala nola irakurriaren eta entzundakoaren ulermena, hiztegia eta gramatika-edukiak. Jarduera bakoitza burutu orduko jakingo du erabiltzaileak emaitza ehunekoetan.

Unitatearen hasieran, zer testuingurutan eta zer gairen inguruan ibiliko den azaltzen zaio erabiltzeari; baita zer helburu lortu nahi diren unitate horretan ere. Halaber, unitatearen azken eginkizunean –ebaluazioari ekin aurretik–, hasieran jarritako helburu horiek zer neurritan bete diren galdetzen zaio erabiltzaileari, eta, horrela autoebaluaziorako eta hausnarketarako gonbita egiten zaio. Eginkizun bakoitzean helburu bat lantzen denez –nahiz eta batzuetan helburu bat bi eginkizunetan jorratu–,

hiruzpalau helburu daude unitateko. Hona, esaterako, 6. unitateko unitatearen sarreran *–Azokan–* jarritako helburuak:

Kaixo! Unitate honetan janariei buruz hitz egingo dugu. Honako gai hauen inguruan arituko gara:

- Janarien eta janari-taldeen izenak esaten.
- Erosketa-zerrenda egiten.
- Neurriak, salneurriak eta denda-motak adierazten.
- Denda batean moldatzen.

Aholku bat: hau guztia ikasteko modurik onena da dendetara joan eta praktikatzea.

Eginkizun bakoitzaren hasieran ere bide beretik jotzen da, eta eginkizun horretan zeren inguruan jardungo den eta zein den helburua adierazten da; izan ere, lehendabiziko jarduera testuingurutzaileria da. Zenbait eginkizunetan, xedea aipatzeaz gain, bideo edo audio bat eskaintzen da, egin beharreko zeregin horretan girotzen eta murgiltzen joateko. Adibidez, 7. unitateko eginkizun bateko 1. jardueran *–Janaria prestatzen–*, honako hau aurkituko dugu:

Eginkizun honetan, plater bat prestatzeko zer pauso eman behar diren ikusiko dugu. Erreparatu (animaziozko bideoan) nire ikasleek egingo dituzten bi plateri, eta janaria prestatu aurretik kontuan hartu beharreko aholkuei! / *En esta tarea vas a ver los pasos para preparar una receta. Fijate en los dos platos que van a preparar mis alumnos y alumnas, y en los consejos que hay que tener en cuenta antes de empezar a cocinar.*

Era askotakoak dira erabiltzaileak egin beharreko jarduera-motak: egia/gezurra, arrastatu (letrak/zenbakiak, hitzak, esaldiak), aukera anitzeko galderak, ordenan jarri, aukeratu, hutsuneak bete, irudiak eta hitzak lotu... Erabiltzaileak amaitu orduko (edo egiten ari dela zenbaitetan) jakin dezake nola egin duen. Hona hemen (2. irudia) *arrastatu* teknika erabiltzen den horietako bat (7. unit., *Zerbitzariarekin elkarrizketa*).

Zenbait eginkizunen edo unitateren bukaeran, zeregin bat jartzen zaio ikasleari jarduera ireki gisa, zeinetan, eginkizuna betetzeaz gain, aukera eskaintzen zaion bere egoera pertsonalera, bere esperientziara jotzeko. Batzuetan, azken eginkizun horrek zerbait idaztea eskatuko dio, taula bat osatzea besteetan, edo gai horren inguruan pentsatzea zer esango lukeen eta nola formulatuko lukeen. Hona horietako adibide bat (3. irudia).

2. irudia: *Esaldiak arrastatzen erako jarduera bat*



Elena: Kaixo, menu bat bazkaldu nahi dut.

Zerbitzaria:

Elena:

Zerbitzaria:

Elena:

Zerbitzaria:

Elena:

Zerbitzaria:

Elena:

Zerbitzaria: Oraintxe ekarriko dizkizut.
.....Geroxeago.....


Zerbitzaria:

Elena:

Zerbitzaria:

Postrenik nahi?	Eta edateko?
Eta bigarren platera?	Oso ondo. Oraintxe ekarriko dizkizut.
Ura. Naturala, mesedez.	Fresko-freskoa, gaur bertan erositakoa.
Ba, hasteko entsalada?	Zer moduzkoa dago arraina?
Ez, eskerrik asko. Ebaki bat eta kontua, mesedez.	Ondo da. Zer hartu behar duzu?
Ba, orduan, legatza.	

3. irudia: *Ikaslearen txokoa izeneko atalean jarduera pertsonalizatzeko aukera dauka erabiltzaileak.*




Deskribatu zure herria

Ondo irakurri eredia eta Guillaume egindako bere herriari buruzko deskribapena. Gero zure jaioterria deskribatu. / Lee bien el ejemplo y la descripción que Guillaume hace de su pueblo. Después describe tu localidad natal.

EREDUA
Nire herria/hiria izena da. Handia/txikia da. Nongo iparraldean/hegoaldean/ekialdean/mendebaldean dago. Kostaldean/barrualdean dago. Biztanle asko/gutxi ditu eta lasaia/zaratatsua da. Plaza/Zubi/Hondartza ederra du. Mugitzeko, normalean jendeak tren/metroa/autobusa erabiltzen du; edo, bestela, oinez.

GULLAUME
Nire herria Miarritze da. Txikia da. Euskal Herriko iparraldean dago. Lapurdiko kostaldean. Biztanle gutxi ditu eta lasaia da. Hondartza ederra du. Mugitzeko, nik normalean autobusa hartzen dut; edo, bestela, oinez.



I-datziكو duzu orain zure herria notakoa den? / ¿Puedes contar ahora cómo es tu pueblo?

3.1. Erabiltzailearentzako laguntzak

Behin AISA materialean sartuz gero, erabiltzaileak beti du bistan kontsultak egiteko aukera, dagoen jardueran dagoela. 4. irudian ikusi daitekeen bezala, honako komando hauek daude kontsultagai:

4. irudia: Goiko partean ageri dira erabiltzaileak kontsulta ditzakeen laguntzak






Euskaltegiko ikasle bakoitzari gaketasun edo zauri bat eman diot paperxo batean idatzita eta galdera hau egin diot: nongo mina duzu? Entzun elkarrizketa eta erantzun galderari. Horretarako, arrastatu letrak zirkuluetara. Nola egin duzun jakiteko, jarduera osorik egin behar duzu. ¡ A cada alumno/a del euskaltegi le he dado un papelito con una enfermedad o herida escrita y le he preguntado dónde le duele. Escucha la conversación y responde a las preguntas. Para ello, arrastra las letras al círculo correspondiente. Para saber cómo has hecho la actividad, tienes que hacerla en su totalidad. ▶ || ◻

▶ ◻ ◻ ◻ ◻ ◻



- a Belarriko mina du a
- b Eskuko mina du b
- c Oineko mina du c
- d Buruko eta ezarriko mina du d

YASMINE: Gripea du.

NAJAT: Besoa hautsi du.


GUILLAUME: Orkatila bihurtu du.



5. irudia: Jarduera bat eta unitatearen zuhaitza ezkerreko zutabean


FAMILIA


- FAMILIA
- Familia
 - Amona, ama, alaba
 - Etenaren familia
 - Vasalen familia
 - Zuhaitz genealogikoa
- Ahaidetasun-haremanak
 - Aitizberren familia
 - Aitizber Pelloren alaba da
 - Ezetz asmatul
 - Etsakuzioa
- Nolakoa da?
 - Ezaguri fisikoak
 - Nolakoak dira?
 - Nolakoa da? Araua
 - Nor da nor?
- Lanbideak
 - Argazkiak lanbideekin lotzen
 - Mekanikaria da eta bananduta dago
 - Euskaltegiko ikasleekin lanbideak
 - Deskribapena
- Etsakuzioa
 - Amona
 - Itzaba Valentinaren ezkontza
 - Elkarrizketa
 - Nahasian



Aitizber Pelloren alaba da

Bueno! Ea gogoritzen dituzun nire familiakoen arteko loturak. Esaldi hauek osatu behar dituzu. ¡ Bueno! A ver si recuerdas las relaciones entre mi familia. Tienes que rellenar estas frases.






- **Hiztegia.** Unitatekoa nahiz AISA osokoa.
- **Gramatika.** Unitateari dagokiona. Ikuspegi komunikatiboaren araberaren ematen dira gramatika-azalpenak; hortaz, ez dago gramatika-taula osorik.
- **Kultura.** Lantzen ari den gaiarekin lotutako eduki kulturalen berri ematen du, estekak etab.
- **Laguntza.** Ikastaroko elementu grafikoaren gaineko informazioa ematen du, logotipo bakoitzak zer adierazten duen azalduz.

Bestalde, nabigazioari begira, esan behar da jarduerak egiterakoan bistan dagoela unitate osoko zuhaitza; baliabide horrek laguntza ederra eskaintzen dio erabiltzaileari, unitatearen barruan kokatzeko eta atzeraurrera mugitzeko (5. irudia).

4. Orain arteko ibilbidea

Ikastaroa Interneten eskuragarri izateak mundu zabaleko erabiltzaileak ekarri dizkigu: Euskal Herriko erabiltzaileak ez ezik, Hego Ameriketakoak (Argentina, Mexiko, Brasil, Peru, Txile...), Espainiako estatukoak (Madril, Kordoba, Malaga...) eta Poloniakoak ere badabilta AISAn barrena. Onlineko ikastaroa abian jarri zenetik –2012ko abendutik 2013ko martxora bitartean– izandako erabilera dago jasota ondoko grafikoan (6. irudia). Bertan ikus daitekeenez, erabiltzaile gehienak bisitari gisa sartzen dira ikastaroan (goitik hasita, 2. lerroa), eta, horregatik, askoz gutxiago dira ikasleak –ikastaroan izena eman dutenak, alegia– (goitik hasita, 3. lerroa).

6. irudia: Ikastaroak izandako erabilera



Bisitari moduan sartzeak badu gabezia nabarmen bat. Hain zuzen ere, egindako lana ez da gordeta geratzen, eta, ondorioz, erabiltzaileak ez ditu eskuragarri gauzatutako jarduerak; eta, ikastaroan sartzen den

bakoitzean, ez ditu aurkituko aurretik egindako lanak jasota, zer eta nola egin duen azalduko liokeena. Eztabaidatu liteke ez ote litzatekeen kendu behar ikastaroan bisitari sartzeko aukera, ikaslearen rola aukera bakartzat lagata. Horrela egingo bagenu, jakina, nabarmen jaitsiko litzateke erabiltzaileen kopurua, baina erabili nahi dutenek atarramentu hobea aterako liokete ikastaroari.

Ikastaroko unitate bakoitzean zenbat jende dabilen adierazten du 7. irudiak; bistakoa denez, hasierako unitateetan jende gehiago dabil gainera-rakoetan baino. Nolanahi ere, datu horiek beste irakurketa bat ere izan lezakete: jendeak hasi bai, baina ez diola jarraitzen ikastaroari, edota sartu-irtena besterik ez duela egiten. Azken balorazio hori egia izatera, ikastaro ireki eta anonimoak duten arriskua frogatuko luke; alegia, jendea hasi bai, baino lehentxeago edo geroxeago bertan behera uzten dituela holako ikastaroak.

7. irudia: Ikastaroan izandako ekintzak unitateka

1	Unitateak	Ekintzak
2	1. Kaixo!	15050
3	2. Inprimakiak betetze <small>SCORM/AICC</small>	4401
4	3. Familia	2848
5	4. Non dago tren-geltokia?	1688
6	5. Hirian ibili	1498
7	6. Azokan	2093
8	7. Hau gosea!	1185
9	8. Dendaz denda	1148
10	9. Zoaz ospitalera!	868
11	10. Horrek dauka sasoia!	695
12	11. Etorri gurera!	655
13	12. Hau kuxidadea!	559
14	13. Jolasean	453
15	14. Eskolan	412
16	15. Bilbotik Kolonbiara	603
17	16. A ze lana, lan bila ibiltzea!	295
18	17. Gizonak lan, emakumeak lan eta lan	419
19	18. Baietz mendi-tontorrera heldu!	413
20	19. Festara!	512
21	20. Jalgi hadi plazara!	610

Arazo horren konponbide izan liteke ikastaroa tutorizatzea. Gorago aipatu dugu ikastaroan jasotako galdera batzuek hortik jotzen zutela; hau da, euskaltegiek ikastaro hau tutorizatzearen alde, beste edozein ikastarorekin egiten duten moduan. Zentzuzkoa dirudi pentsatzeak tutore

izateak eragina izango lukeela ikasleen motibazioan; ondorioz, ikaslea ez litzateke hain bakarrik sentituko eta ez luke horren erraz lagako ikastaroa bertan behera.

Esan bezala, ikastaroa hasi baino ez da egin, eta denborak erakutsiko digu bere benetako erabilera eta potentziala zein den; baztertu gabe, datuen argitan, dagozkion hobekuntzak egitea ikastaroari.

5. AISA aurrez aurreko ikastaroak¹

Autoikaskuntzaren bidez gain, badago aukera AISA ikastaroa egiteko irakaslearen laguntzarekin eta talde batean. Harrera-ikastarook antolatzeke eskariak udalek eta euskaltegiek egin ditzakete; etorkinen elkar-teek ezin dute zuzenean eskatu. Eskariak HABEra bideratu behar dituzte (info@habe.org, tel. 943-022600).

Hona hemen bete beharreko baldintzak, diru-laguntza jaso ahal izateko:

- Ikasleak etorkinak izatea, egoera administratiboa irregularra izanda ere.
- 60 orduko ikastaroa izatea, astean 3-4-6 ordu, 1-2-3 egunetan banatuta.
- AISA liburuak erabiltzea.
- Udalek nahi duten euskaltegia hautatzeko aukera.
- Irakaslea euskaltegi homologatu bateko langilea izatea.
- Ebaluazio-fitxa betetzea ikastaroaren bukaeran.

Finantzazioari dagokionez, era honetan antolatu eta emandako ikastaroak HABEK finantzatuko ditu ohiko diru-laguntzen bitartez, eskolak ematen dituen euskaltegiari gainerako ikastaro homologatuak babes-teko erabiltzen dituen moduan. Euskaltegi pribatuen kasuan, oinarrizko moduluaren bitartez babestuko da onartutako taldearen eskola-ordua, euskaltegiaren ratioan eraginik izan gabe; horrez gain, ikasleak ordaindu beharko lukeena gutxitze aldera, HABEK 800 euroko gehigarria ordainduko dio euskaltegiari. Udal-euskaltegien kasuan, 400 eurokoa izango da ikasleak ordaindu beharko lukeena gutxitzeko gehigarria. Aipatutako diru-kopuru horiek 2012-2013 ikasturteari dagozkionak dira, eta informazio osoagoa nahi duenak HABEren webgunean aurkituko du, “Xede berezietako ikastaroak” atalean.

6. AISA online ikastaroaren osagarriak

AISA online ikastaroan barna abiatzen denak eskura du ikasprozesuan aurrera egiteko aukera. Hona horietako batzuk:

• Pixkanaka

Ikasbil baliabide didaktikoen biltegian aukera du beste zenbait eduki interesgarri aurkitzeko, hala nola *Pixkanaka* atala (<http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/pixkanaka>).

1. *Editorearen oharra*: artikulua idatzi denean indarrean dauden baldintzak.

Egunero sortzen diren egoeretan erabiltzeko moduko esaldi sinpleak aurkituko ditu erabiltzaileak atal horretan, irakurtzeko eta entzuteko. Orobat, eguneroko bizimoduarekin loturiko elkarrizketa errazak irakurri eta entzuteko aukera izango du, ulermena eta mintzamina lantzen lagunduko diotenak.

- **Kerman!**

Bakarka eta online jarraitu nahi izanez gero, *Kerman, mintzalagun bila* ere baliagarri gerta dakioke euskara-maila hobetu nahi duenari. A2 mailako 300 bideo eta beste horrenbeste ataza ditu eskura Ikasbil atarian (www.ikasbil.net). Bideo hauetan, hainbat egoerari egin beharko die aurre Kermanek, eta modu erraz eta atseginean aurkezten zaizkio egoera horietarako baliagarriak diren eduki eta hiztegia.

Bibliografia

Benitez, B.; Gaintza, A. 2004. AISA, etorkinak euskarara hurbiltzeko atea. *Hizpide*, 56: 3-13.